



MEMORIA

2017

LOIOLA
KULTUR ETXEA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



LOIOLA KULTUR ETXEA



Supituki, Tutik Clowns, Gari, Montxo eta Joselontxo, Kale Antzerkia.

2017an bi jarduera mota dira aipagarrienak, **Arte Biziak** izendatu litezkeenak: **Euskal Mitologia erakusketa** eta **Ipuinaren Ibilbidea Jan-ta-loin**. Bi jarduera nagusien barruan antzerkia, dantza, poesia, performanceak, kantzak, proiektzioak, hitzalditxoak, bideo grabaketak, musika zuzenean, ipuin kontaketak, argazkiak eta abar izan ziren eta, gainera, auzolanean edo auzo eragileekin sortu ziren.

Hori esanda, ohiko programazioari dagokionez, hona hemen eduki azpimarragarrienak:
Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiaren 26. urteurrena, **Rafael Mazaren** *Hey Bro! Hipster show!* nabarmendu zelarik;
Kale Antzerkia, **Trapu Zaharren** *A Cal y Canto* lanarekin; **Nazioarteko Folklore Jaialdia**, Indiako eta Txuvaxiako taldeekin; edo **Abesbatzen Astean** **The Girls' Choir of the Old Town Music House** abesbatza estoniarrak Tolosako Abesbatzen Lehiaketako sarituak emandako kantaldia. Denak, kultur etxetik kanpo eta publiko andanarekin.

Loiolako eta Martuteneko Euskara Batzordeekin, jarduera ugari egin ziren: **San Isidro**, **San Martin Topaketak**, **Santo Tomas**, **Korrika**, udaberrian egiten den **Euskal Kulturaren Ildotik** zikloa, eta hilero osatzen den **Kantujira**, kaleko musikarien jardunaldiekin: **Bentazaharreko Mutiko Alaiak**,

Iruñeako Zazpitan Lehena Jota Taldea, **Iker Goenaga** eta Trikitilariak, **Joxe Mendizabalen** erromeria.com...

Lantegi eta ikastaroei dagokionez, ohikoez gain (Pilates, Yoga, Dantzak, PNLCoaching, Mindfulness, Meditazioa...), Biodantzakoak berreskuratu ziren eta berri-berria izan zen Kabaret eta Burlesque.

Erakusketetan, aurreko urteetan bezala, 5 erakusketa gune erabili ziren: kultur etxeko erakusketa aretoa, atondoa eta komunak, **Lekuona** drogeriako eta **Gorriti** janari dendako erakusleihoak, eta Etxarriene. Besteak beste, **Zita Ayalaren** *Argizkutua* oso originala izan zen; **Abbé Pierreri** Emausek egindako omenaldia; **Euskal Mitologia**, **Alberto Saavedra** zenaren panpinekin; **Haritzalde** eta



Mikologia jardunaldien Astotxoa.



Kantujiira, Bentazarreko mutil alaiak.

Ramón Arambarriren **Urumea Bizi** argazki erakusketa eta Loiolako argazki historikoak auzoan, Kultur Etxeko bildumarekin.

Bideoek eta filmek ere tokia izan zuten, esaterako, **Olatu Talkan**. Aurten ere pelikula bat egin zen, **Loiola D'Or Ciudad de Vacaciones**, Axel Casasek zuzenduta, eta ehun bat auzotarrek parte hartu zuten. Auzotarrek beste bi

proiektuetan ere parte hartu zuten: Euskal Mitologiako bideoetan eta **Juanmi Gutiérrezen Bideak Amesten** filman.

Programa hauetan guztietan haur eta gazte askok parte hartu zuten: Loiola D'Or, Jan-ta-loin eta Euskal Mitologian, auzoetako eragile soziokulturekin lan eginez: **Sustrai Aisialdi Taldea, Tan Tai Konpartsa, Hontza Kultur Elkartea, Gure Babesa Aiton-amonen Elkartea...**


Ohiko beste programak, urtetan garatu direnak, gutxienez aipamena merezi dute memoria honetan:

Mikologia, Panpin Parada, Poetry in Motion, Vintage Festibala, Hidro-Logikak...

Bukatzeko, esan ere, bi programa berri martxan jarri zirela: **Politika eta Ekologia** eta liburutegian, **Liburu Baby Kluba**.



Loiola d'Or ekimena Olatu Talka jaialdian.



Halloween ospakizuna.



LOIOLA

KULTUR ETXEA

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	174	36.943
Antzerkia	20	3.160
Dantza	2	2.500
Musika	27	3.780
Zinea	8	400
Hitzaldiak eta mahai inguruak	6	245
Erakusketak	17	23.019
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	29	743
Liburutegiko jarduerak	37	496
Olatu Talka	4	500
Beste	24	2.100
ZERBITZUAK		
		BISITAK
GUZTIRA		24.754
Liburutegiko bisitariak		24.754



Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	31	387	8	91	23	296
2016/17 Ikastaroak	12	155	2	27	10	128
2017/18 Ikastaroak	19	232	6	64	13	168

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	31	73	8	14	23	59
2016/17 Ikastaroak	12	28	2	5	10	23
2017/18 Ikastaroak	19	45	6	9	13	36

BISITARIAK GUZTIRA: 42.000